

# Gernika 2037

## Markak birsortzen espazio publikoan

### Laburpena

Arkibai eta Lobak elkarteak bat egin dugu Gernika 2037 proiektuan Gernikako bonbardaketaren markak espazio publikoan birsortzeko asmoz. Helburua da, herritarrei zein kanpotarrei, mapa interaktibo baten bidez bonbardaketak txikitutakoa, zutik iraundakoa eta berreraikuntzak estalitakoa bistaratzea.

*Gako-hitzak: Gernika, bonbardaketa, markak, espazio publikoa, mapa interaktiboa*

### Abstract

The members of the associations Lobak and Arkibai are collaborating in the project Gernika 2037 in order to rebirth the marks of the Gernika bombing in the city's public space. The main goal is to make the places which were destroyed at the bombing and hidden until nowadays visible for the citizens with an interactive map.

*Keywords: Gernika, bombing, marks, public space, interactive map*



Ainhoa Vazquez

Arkitektoa eta Arkibai elkarteko kidea, 2017tik Gernika 2037 proiektuan

Bidaltze data: 2019-03-29  
Onartze data: 2019-05-30



Arkibai eta Lobak elkarteak bat egin dugu hirigintza eta memoria historikoa uztartzen dituen proiektu hau gauzatzeko. Duela bi urte jaio zen ideia hau. Zerbeza eskuan eta gau partean taberna batean izaten diren elkarriketa horietako baten fruitu izan zen.

Arkibaik Urdaibaiko arkitektura eta hirigintzako alternatibak lantzen ditu. Elkarteak sortu genuenean Arkitektura Eskolako ikasleak ginen eta eskolako ezagutzetatik haratago bertan ikasitakoa praktikan jartzea zen gure helburua. Ordutik hainbat proiektu burutu ditugu: ortu kolektiboak, hiri-altzarien diseinua, parte-hartze prozesuak...

Lobak Gernikako bonbardaketa sufritu zutenen lobak dira, gertakari haren testigantza zuzena jaso duen azken belaunaldia. Bonbardaketaren gertakari historikoa gai hartuta sorkuntza-eremu ezberdinetan lan egiten duten gazteak dira.

Diziplina zeharo desberdinak landu arren, gauza batek sendo lotzen gaitu, gernikarrak garel.

### 1937. Bonbardaketa. Luzaroan lurperatutako gertakaria

Mundu mailan ezaguna da Gernikako bonbardaketa. 1937ko apirilaren 26an faxistek Gernika txikitu zuten, eta ez zuten edozein herri aukeratu, euskaldunen bakearen ikurra hautatu zuten. Historialarien arabera eraikinen % 85 guztiz erre zituzten, eta gainerako eraikinek kalteak jasan zituzten. Sarraski haren markak ezabatu egin ziren, lurperatu, eta haien gainean herri berria eraiki zen. Diktadurak iraun zuen 40 urteetan isiltasuna izan zen nagusi.

Demokraziaren hasierarekin batera jendea estalitako egiaren bila hasi zen, lekuko testigantzak bilduz. Urte urte gertatutakoari dimentsio politikoa eta sinbolikoa ematen lan egin dute Gernika-Lumoko hainbat erakundek eta elkarteak (Gernikazarra historia taldea esaterako). Ondare historiko fisikoari dagokionez, aldiz, bai erakundeek bai herritarrek sentsibilitate gutxirekin jokatu dugu. Bonbardaketatik zutik geratutako ondare apurra desagertuz joan da gutxinaka, eta biziraun duten elementuen ikusgarritasuna hobetzeko dago. Bidegabekeriaren tamaina kontuan izanda, bonbardaketaren memoriak Gernika-Lumoko espazio publikoan duen presentzia ez da behar bestekoa, mundu mailan ezaguna den gertakari/sinboloa Gernikako jendearen egunerokotasunetik urrunduz. Horrez gain, Gernikara hurbiltzen diren bisitariak nahi luketena baino gutxiago daukate gure kaleetan ikusteko eta sentitzeko.

### 2017. Memoria eta identitatea

«Gizarteari dena ahaztu egiten zaio. Gertaerak desegin egiten dira. Gogoratzeak, memoriak, lan asko eskatzen du. Nahitaezkoa da euskarri batzuk egotea. Zerbait, zeinu batzuk behar dira gogoratzeko. Zeren eta normalena ez da gogoratzea, normalena da ahaztea»

(Bernardo Atxaga - Markak dokumentala, 2016).

Gernika bezalako herri txiki batean memoria kolektiboak eta identitateak sekulako garrantzia daukate. Gernikako bizilagunak ez badira sentitzen herriaren parte, komunitatearen parte, oso zaila da herri horrek bere burua



1.irudia ~ Gernika bonbardaketa ostein.  
Iturria ~ Gernikazarra historia taldea.

berrasmatzea eta aurrera egiteko aldaketak erdiestea. Memoria ariketa ezinbestekoa da etorkizunera begiratzeko. Eta guk, bereziki, etorkizunera begiratu nahi dugu proiektu honekin, heriotzarekin lotutako testuinguru batetik bizitza sortzeko.

### 2037. Proiektua. Markak birsortuz

Gernika 2037 proiektua Gernika-Lumokobonbardaketarekin lotutako ondareari balioa emateko jaio zen. Horretarako gaur egungo espazio publikoetan egitasmo ezberdinak proposatu nahi ditu; marka zaharrak berreskuratu eta berriak sortuz, markak birsortuz. 2037an bonbardaketaren 100. urteurrena izango da, oroimenerako data borobila, eta ordurako Gernikako kaleak ehun urte lehenago gertatutakoaren narratzaile bihurtu nahi ditugu. Bide luze baten hasiera baino ez da, memoria historikoa balioan jarriko dituen beste hainbat proiekturen katalizatzailea, iragana aintzat hartuz etorkizunera begiratzeko.

Proiektua martxan jartzeko Gernikan bonbardaketaren inguruan lan egiten duten eragile ezberdinekin harremanetan jarri ginen, prozesua ahalik eta askotarikoena izateko asmoz; gizarte-eragileak, administrazioko erakundeak, sortzaileak... Hasteko, identifikazio ariketa batzuk abiatu genituen, herriko historialari eta sortzaileekin. Lehenengo saioan, Gernikako mapa batean bonbardaketatik zutik irauten duten edota erre ziren tokiak seinaltatu behar ziren. Bigarren saio batean, mapan identifikatutako toki desberdinetatik ibilbideak antolatu genituen, taldeka lekuetan geldialdiak eginez, antzinako argazkiak ikusteko eta hausnarketa edota solasaldi txikiak egiteko.

### 2037. Hausnarketa

Ariketa horiek prestatzen ari ginela, eta horiek egin bitartean, bonbardaketako eta bonbardaketa aurreko Gernikako tokiak eta bizimoduaren inguruko informazioaren inguruan hausnartzeko beharrezana sentitu genuen. Ezjakintasun izugarria nabaritu genuen gure artean, bai eta ariketetara deitu genituen herritarren artean ere. «San Juanen eliza bat ote zegoen? enekien...», «Frontoi zaharrea boxeo-txapelketak antolatzen zirela diozu?», «Andra Mari kaleko babeslekua nolako zen?».

Gainera, bonbardaketaren inguruko informazioa ez dago jendearentzat eskuragarri, paperetan sakabanatuta dago herriko bulego, artxibo eta etxeetan. Etorkizuna eraikitzeko memoriatik abiatu behar baldin badugu, memoria hori herritarrei eskura jarri behar genielako konturatu ginen: informazioa bildu eta Internet bitartez zabalduz.

### 2037. Mapa interaktiboa

Hausnarketa honetatik abiatuz, gure proiektuak noranzko berri bat hartu du: Gernikako bonbardaketaren memoria bilduko duen mapa interaktiboa sortzea, propio sortutako web orrian, hainbat testigantza, dokumentu, argazki edo bideo bilduko dituena. Gure eginkizuna gertatutakoa argitzeko lan egin duten erakundeen lana batu eta informazio hori baliabide teknologiko berrietara egokitzea da.

Etorkizunari begira egindako mapa da. Gernikako espazio publikoari balioa eman nahi diogu mapa hau tresna bezala erabiliz. Memoriaren transmisioa gauzatzeaz aparte,

etorkizuneko Gernikan espazio publikoan memoria horrek presentzia berezia izatea nahi dugu. Horretarako, mapa etorkizunerako proposamenak jasotzeko euskarria ere izango da. Izan ere, jendeak memoria eta espazio publikoarekin lotutako proposamenak idatzi ahal izango ditu.

### 2018-2019. Hastapenak

Mapa interaktiboa gauzatzeko profesionalen laguntza beharko genuela aurreikusiz, eta proiektua gizartekotzeko asmoz, Crowdfunding kanpaina bat abiatu genuen 2018ko apirilean. Orduetik hona gogor gabiltza lanean. Alde batetik,

informazioa biltzen eta sailkatzen (bideoak, ahozko testigantzak, argazkiak...), beste alde batetik, bonbardaketa aurreko planoak interpretatzen eta birsortzen, eta, azkenik, mapa interaktiboaren softwarea eta diseinua lantzen. Helburua 2020ko bonbardaketaren urteurrenerako mapa prest izatea da.

///

### Bibliografia

Del Palacio Sanchez, V. (2012): *Sustrai erreak 2 Gernika 1937*, Gernikazarra historia taldea.



- 2.irudia ~ Pasilekua lehen eta orain.
- 3.irudia ~ Gernikako arbola lehen eta orain.
- 4.irudia ~ Astra lehen eta orain.
- Egilea ~ Lobak ekimena.

